

Globalizazioa



PENTSATU

Globalizazioa mundu mailan hainbat esparrutan -merkataritzan, politikan, teknologian, komunikazioetan, gizartean eta kulturatan- gertatzen den integrazio-prozesu historikoa da, mundua gero eta konektatuagoa den toki edo "herri global" bihurtu duena. Prozesua Gerra Hotza bukatu zenean hasi zen, merkatu askea mundu osora hedatzen hasi zelako.

BAZENEKIEN...

Espainiako Errege Akademiaren hiztegiak honela definitzen du **globalizazio** terminoa: «*Ekonomiek eta merkatuek, komunikazioaren teknologien garapenaren bidez, mundu-dimentsioa berenganatzen duten prozesua, zeinaren ondorioz kanpo-merkatuen gero eta mendekoago eta gobernuen ekintza arautzailatik gero eta askeago diren*».



Globalizazioa, funtsean, prozesu ekonomikoa da, eta ekonomia nazionalak munduko merkatu-ekonomia bakar batean gero eta areago integratzean datza.

Globalizazioa, oinarrian, **lau kausaren** emaitza da; horiek ez dira nahitaez independenteak, baina bereizi eta zehaztu egin behar dira:

1. Ekonomiaren mundializazioa. Eta hau, aldi berean, beste elementu batzuen ondorioa da: komunikazioak hobetzea, mugak irekitzea, garraio-kostuak jaitea, ekoizpenaren zatikapen geografikoa, nazioarteko merkataritza oro har hobetzea, finantzaketa globala hobetzea eta kapitalaren eta teknologiaren arteko aliantza estrategiko berria.
2. Azken bi hamarkadetan sortutako teknologia berri eta garrantzitsuak.
3. Komunikazioen planeta osoko estaldura (sateliteak, telefonia mugikorra, Internet).
4. Ezagutza-faktorea eta, zehazkiago, berrikuntza prozesu ekonomikoetan hartzen ari diren garrantzia.

Globalizazioaren ondorio kaltekorrenetako bat ekonomia- eta merkataritza-harremanen asimetria da, Iparraldeko herrialdeen eta Hegoaldeko herrialdeen artean nabaritzen dena, azken berrogei urteetan gertatutako merkatuen liberalizazioaren ondorioz ([ikus "Ipar-hego harremanak" fitxa](#)). Iparraldeko herrialdeek atera diote etekin handiena globalizazioari, merkatu berriak, eskulana, lehengaiak, zerga-baldintzak, ekoizteko edo erauzteko baldintza hobeak aurkitu ahal izan dituztelako.

Oro har, "iparraldeko" herrialdeak direlakoak herrialde "aberatsak edo garatuak" dira, lehengaiak, eskulana eta baliabideak (energia, ura eta abar) "hegoaldeko herrialdeetan" lortzen dituztenak. Herrialde "txiroak edo garapen bidean daudenak", askotan, herrialde aberatsak dira, baliabide natural ugari dutelako, baina pobretuz joan dira azken mendeotan, kolonizaziotik industrializaziora eta industrializaziotik globalizaziora igarota. Haietako askok ikusi dute nola erauzi diren denbora horretan guztian beren aberastasunak (laboreak, mineralak, egurra, eskulan merkeagoa eta abar), beste herrialde batzuetara eramateko eta hor ustiatzeko, beren lurraldeetan garapen industrial eta ekonomiko handirik eragin gabe. Askotan gertatzen baita esportazio horien ondoriozko diru-sarrerak herrialdeko elitearen eskuetan geratzen direla, aberastasuna gizartean birbanatu gabe eta biztanle gehienek bizi-baldintzak hobetu gabe.

Mundua askoz ere hobeto konektatuta dago orain (garraioak, komunikazioa, ekonomia, kultura), eta horrek baditu abantailak elkarrekin komunikatzeko, erosteko edo bidaiatzeko orduan. Hala ere, elkarrekiko lotura handiago horren ondorioz, errazagoa da krisi ekonomiko eta finantzarioak herrialdeen artean "kutsatzea", baita gaixotasunak eta pandemiak munduan zehar hedatzea ere.



ZER EGIN DEZAKET NIK...?

- Izan jakitun globalizazioak esan nahi duenaz eta gure inguruan dakartzan alderdi negatiboez, ahal den neurrian arindu ahal izateko.
- Ebaluatu, ahal den guztietan, bidezko merkataritzako produktuak erosteko aukera, hain zuzen ekoizpen-baldintza jasagarriak, etikoak eta solidarioak bermatzeko asmoz. ([ikus "Bidezko merkataritza" fitxa](#)).

GEHIAGO JAKITEKO...

- [WIKIHOW](#)
- [Globalizazioa](#)